

**INBESTIDURA-HITZALDIA**

**MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS, NAFARROAKO GOBERNUKO  
LEHENDAKARI IZATEKO HAUTAGAIA**

**2019KO ABUZTUAK 1**

Eskerrik asko, Lehendakaria; egun on, jaun-andreok, gonbidatuak, komunikabideak; eta agur bat, baita ere, kanal ezberdinetatik jarraitzen ari direnei. Egun on.

Tribuna honetara irten naiz Ganbera honen aurrean Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzarako hautagaitza aurkezteko. Eta ahalik eta euskarri onenarekin egiten dut; hots, edukien akordioarekin.

Parlamentuko lau indarren artean adostutako proiektuarekin etorri naiz, horiek gehiengo osoa osatu ez badute ere, pasa den maiatzean herritarrek hautestontzietan utzitako mezua kontuan hartuta eraiki ahal izan den gehiengorik zabalena batu baitute.

Herritarrei, batetik, eskerrak eman nahi dizkiet gure komunitatearen orainarekin eta geroarekin duten konpromisoarengatik. Konpromiso argia eta sendoa erakutsi dute parte-hartzea oso altua izan da-eta, %72koa.

Baina, bestetik, hauteskunde horien gainean beste irakurketa bat ere egin behar da; hain zuzen ere, Nafarroa plurala dela (egiaz, lehendik ere bagenekien). Eta aniztasun horrek ezberdinen artean akordioak egitea eskatzen du, aurrerapena eta oparotasuna lortzeko gizarte eta lurralde kohesioan edota berrikuntzan, garapenaren ardatz gisa hartuta. Halaber, bizikidetzan aurrera egin behar da, bereizten gaituen aniztasun edo dibertsitate hori jaurtitzeko arma moduan erabili ordez, balio erantsi bezala erabiltzearen.

Nafarroa ez da homogenea, ezta uniforme ere. Ez da ez gizartearen, ez lurraldearen, ez ideologiaren ikuspegitik. Eta ez du izan behar, gainera. Hori dela-eta, Lehendakaritzarako nire hautagaitzak konpromiso argia du aldea errespetatzearekin nahiz interes orokorraren nagusitasunarekin.

Zeren ni buru izango nauen Gobernuak edota Ganbera honek bere konfiantza ematen badidate, herritar guztientzako Gobernu izango da. Baita beste alderdi batzuei botoa eman dieten herritarrentzat ere, aldeak gainditzen eta adosten dakiten agintariak merezi baitituzte, eta ez aldearekin eragozpenak eta akordioarekin arazoak sortzen dituztenak.

Komunitateetan nahiz Espainian egiten ari diren inbestidura ezberdinak direla-eta, akordioen garrantziaz asko hitz egiten da egun hauetan, negoziazioa erabiltzeaz gizartearentzat oro har onena bilatzeko eta ez soilik alderdiaren estrategia bezala.

Herritarrek akordioak nahi dituzte. Eta heldutasun demokratikoa eta zentraltasuna erakusten ari dira, zenbait posizionamendu politikorekin bat ez datorrena, zentralitatearen eta akordioaren aurkako tokian egoteagatik, adostea amore ematea dela eta negoziatzea salerostea dela uste dutelako. Nik, ordea, horrela pentsatzen dutenak gehiengo soziala entzutera animatzen ditut, ez baita leku horietan kokatzen eta askotan, gainera, politika bera baino aurrerago aurkitzen baita.

Nafarroak bere burua komunitate pluralizat hartzen du, eta homogeneousizatzeko, inboluzionatzeko edo inposatzeko edozein tentazio ez du ulertuko aniztasunean bizi den gizarte horrek, badaki-eta pentsamendua eta sentimenduak ere libreak direla. Baina hortik haratago batzen gaituen zerbaite badago; hau da, oparotasun-nahia, guztion ongia, Nafar Foru abegitsu, solidario, desberdin honen esparruan, oraingo eta etorkizuneko garapen ekonomiko eta sozialerako oinarri solidoak eraikitze eta finkatzeko erronka izanik. Eta hori aurrean ditugun erronka garrantzitsuei helduta egin behar dugu, batzuetan mugitzen garen osotasunetik etorriak, gu ere horren zati garelarik; alegia, digitalizazioa, robotizazioa, zahartzea, berdintasun erreala eta despopulazioa, besteak beste.

Eta erronka horiek guztiek akordioak, adostasunak eta hausnarketak eskatzen dituzte, lasaitasunetik, zentzuzko analisitik eta proposamen ausartetatik partekatuak. Era berean, aurrera begiratzen duen gobernu eskatzen dute, sentsibilitate sozial handia duena eta berdintasunean sinesten duena.

Pertsonen arteko berdintasuna, Nafarroako zona ezberdinen arteko berdintasuna, aukera-berdintasuna. Berdintasun horretan sartzen da pobrezia gutxiago izatea, lan-ezegonkortasun gutxiago izatea eta genero-indarkeria eta indarkeria homofoboa eta xenofoboa desagerraraztea. Azken finean, gobernu honetan berdintasunak politika publikoen zeharkako elementua izan behar du.

Aurrerago akordioaren edukiaren berri emango dizuet, baina, jaun-andreok, utzidazue hautagaitza hau benetako egiteko aukera eman duen akordio politikoaren balioa nabarmentzen.

Lehenik eta behin, balioa akordioak ematen du. Lau alderdiren artean egin da, eta horietako batzuk aldi berean hainbat alderdi osatzen dituzte. Hortaz, akordio zabal hau gauzatu ahal izan da borondateari, konpromisoari eta ulertzeko gaitasunari esker. Guztiok uste dugu gure foru izatearen esparruan, guztion onerako aurrerapenak, politika berritzaileek eta arlo sozialekoek politika publikoen gidari izan behar dutela, gure gizartea oparoa izan dadin eta soldata, genero, lurralde eta gizarte mailako zuloak eten ditzagun, desberdintasuna ekartzeaz gain, bidegabeak dira-eta.

Bigarren, ezkerren eta nazionalismoaren arteko akordioaren aurrean gaude, eta hori ez da berria ez Espainian, ez Nafarroan, beste instituzio batzuetan ere gertatzen baita, eta eraginkorra dela erakutsi da aktoreak zentralitate politikoan kokatzean. Zentralitate horrek aniztasuna islatzen du, baina badaki alde batera uzten desberdintasunak, demokrazian legitimoak direnak, gehiengo sentsibilitate sozialari erantzungo dioten gai aurrerakoiak lehenesteko.

Horregatik, ziur nago hondamendiaren guruek bira eman beharko dutela, gertaerek erakutsiko baitute Gobernu hau zentralitate horretan kokatutako Gobernu dela, eta, beraz, haren proposamenak ez dira arraroak edo alderdikoiak izango, eta ez dute ezer arriskuan jarriko edota inolako hondamendirik ekarriko.

Proposamenak orekatuak, zentzuzkoak, bidezkoak eta arrazoituak izango dira, eta beti interes orokorrari erreparatzen ahaleginduko gara. Izan ere, gobernu bat osatzen duten alderdiak gainditzen dituen erakundea da. Lehendakaritza ordezkatzeko dituen herritarrei zor zaie beste ezer baino lehen, eta herritarrak artatzeko eta haiei gobernu-ekintzatik erantzuteko betebeharra du, baita kontuak emateko betebeharra ere.

Poetak zioen moduan, "Ibiltari, ez dago biderik, bidea ibiliaz egiten da". Dena iritsiko da, eta denborak arrazoiak eman eta kenduko ditu. Baina aurreratu nahi dizuet honako hau begirada luzeko akordioa dela, eta epe laburrera, ertainera eta luzera lan egiteko aukera ematen duen oinarria duela.

Gainera, gorrotorik gabe egingo du, nahiz eta honaino iristerako gauza asko entzun eta bizi behar izan egun hauetan. Eta konpromiso politiko eta etiko handia du. Gutxiengoaren gobernu dela badakigun arren, ziur nago ekintzek eta proposamenek babes handiak izango dituztela. Eta guk egunetik egunera landuko ditugu.

Bereziki sentikorrek eta gure etorkizunerako funtsezkoak diren gaitan, eta gure erakundeen kalitate demokratikoari begira, adostasunak bilatzen ahaleginduko gara bereziki; nahiago nuke guztien adostasunak balira. Izan ere, gai batzuetan, siglen gaintetik, ez luke desadostasunik egon beharko gizarte bezala.

Eta jakin badakit prozesuaren beroaldia igarotzean eta dena Parlamentuan egunetik egunera lan egiteko dugun normaltasunera itzultzean, desberdinen arteko elkarriketa eta akordioa posible ez ezik, errealitate ere izango direla, Nafarroan beti horrela izan baita eta horrela izaten jarraitu behar du.

Berrogeita hamar parlamentariei akordioak erreklamatzeko dituen herritarren ordezkari gisa dugun erantzukizuna eskatzen diet, erantzuna espero duten arazoak baitituzte. Gure lurraldearen legegintza-funtzioaz eta funtzio exekutiboaz arduratzeko ohorea dugunon eskutik espero den maila politikoarekin jokatzeko eskatzen dut.

Konpromisoa hartzen dut, Lehendakari bezala, Parlamentu honek bere konfiantza ematen badit behintzat, Gobernu osoa herritarren eskura eta Ganbera honen eskura jartzeko, elkarriketa eraikitzailetik lana bizi-bizi egin dezagun. Jaun-andreok, elkarrekotasuna aurkitzea espero eta nahi dut, eta uste dut adi-adi begiratzen digun gizarteak horrela izatea eskertuko duela.

Jaun-andreok, jakin badakizue baikorra naizela, eta ziur nago sen ona nagusi izango dugula. Izan ere, guztiok badakigu gizarte polarizatzea arduragabekeria dela, zeren elkarbizitza hautsi eta zalantzak sortzen ditu. Eta oparotasunerako zalantza baino etsai handiagorik ez dago.

Beraz, lasaitasuna, neurritasuna, sen ona eskatzen ditut, Ganbera honetan herritarrak ordezkatzeko ditugunok erronken mailan eta garai konplexu nahiz zoragarri hauek eskatzen dizkiguten erantzunen mailan egon gaitezen; zoragarriak dira aurrean ditugun aldaketen garrantziengatik.

Parlamentua erakunde bereziki garrantzitsua izango da legegintzaldi honetan eta **elkarriketa politiko eta soziala** zuzendu nahi dudana gobernuaren **governatzeko erreminta**.

Esan dudan moduan, gobernu honetan berdintasuna eta oparotasuna izango dira nagusi, gure esparru instituzionala errespetatuaz eta Espainiako Gobernuarekiko leialtasuna izanaz, harekin batera lan egingo baitugu.

Gobernu honek memoria historikoaren eta berriaren alde lan egiten jarraituko du.

ETA duela urte eta erdi desegin zen, eta duela zortzi urte terrorismoa alde batera utzi zuen. Horretara iristeko, ia mila erailketa gertatu ziren eta memoria geratu beharreko beldur politikoa. Erabateko gaitzespena behar du horrek eta inoiz hasi behar ez zen bidean erantzukizuna izandakoek egindako kaltearen aitortpena.

Demokraziak indartu egin behar du, eta konpromiso etikoa eta egindako akatsen aitortpena ongi hartuko ditu ordezkariak terrorismoa, faxismoa, demokraziaren aurkako jarrerak eta indarkeriarenak salatzeke eta baztertzeko argi eta zorrotz jokatzeko eskatzen dien gizarteak.

Gobernu honek identitate-sentimendu ezberdinak errespetatuko ditu, betiere instituzioaren egitekoa eremu pribatutik bereizten jakinda. Eta bizikidetzaren horretan, bereizten gaituen aniztasunean, sinesten jarraituko du.

Hori dela-eta, beste behin eskerrak eman nahi dizkiet akordioa sinatu duten lau alderdiei elkarbizitzako, berdintasuneko, berrikuntzako eta aurrera begirako legegintza-programa aurrera ateratzeko borondate garbia agertzeagatik.

Orainaren eta etorkizunaren alde lan egiteko erabakia hartzeko gai izan gara, errebisionismo eta gaitzespenik gabe. Gure eskuzabaltasunak politikak balio duela erakutsi du eta duen irudi sozialaz haratago doala, eta horren atzean, jakina, pertsona langile, konprometitu eta zintzo ugari daude. Politika hori handi egiten duten pertsonak dira. Politika duin bihurtu eta goragoko mailara eramaten dute.

Konfiantzako eta laneko espazioa landu dugu eta nahi dugun Nafarroa eratzen duen asmo handiko akordioa.

Beraz, uste osoarekin, akordioa negoziatzeko nahiz berronesteko prozesua burutu dugu, ibilbide-orri handi, ausart eta adoretu horretan zehaztearekin batera. Esan bezala, premiari eta garrantzitsuenari heltzen dio, baina gure lurralderako etorkizuneko proiektua ere diseinatzen du eta etorkizuneko akordioei eusteko aurrerapeneko akordio-eredua ere bai. Ziur nago gizartearen beharrei eta arazoei ondoen erantzuten dien akordioa dela, baina baita gizartearen beraren antza gehien duena ere. Ondorioz, erronka eta errealitate horiek ikuspegi integratzailetik ondoen uler ditzakeena da, komunitate eta gizarte gisa.

Akordioan argi eta garbi agertzen dira legegintzaldian izango ditugun helburuak, jada aipatu ditudanak, baina orain laburbilduta agertuko ditut, gure politikaren gidariak izango baitira.

Aurrerapen ekonomikoa eta soziala, desberdintasunaren aurkako borroka, erakundearekiko leialtasunaren barruan autogobernuaren defentsa eta hobekuntza, aukera-berdintasuna eta aniztasunean elkarrekin bizitzea.

Helburu horiek ekintza politikoaren hamar ardatzetan antolatu ditugu:

1. Pertsonengan oinarritutako politikak lehenestea.
2. Agenda 2030 bultzatzea.
3. Bakea, memoria, elkarbizitza eta indarkeriari legitimitatea kentzea bezalako balioen aldeko apustua egitea, maila guztietan bereizten gaituen aniztasuna aldarrikatuaz, izan soziala, lurralde-mailakoa, identitatezkoa edota sexuala.
4. Zeharkako kontzeptutik genero-berdintasunaren aldeko apustua egitea politika publiko guztietan, indarkeria eta jokabide matxista guztiak ezabatzearen.
5. Herritarren eskubide berriak bultzatzea.
6. Eraldaketa digitalaren erronkari erantzutea.



7. Erreferentziazko zerbitzu publikoen aldeko apustua egitea unibertsaltasunaren, kalitatearen eta ekitatearen inguruko printzipioak aintzat hartuta.
  
8. Erakunde publikoen eta gizarte zibilaren arteko lankidetzak aktiboa jorratzea, guztion ongia bilatzeko faktore dinamizatzailerik gisa.
  
9. Eredu instituzionala, gure autogobernua, errespetatzea, legezotasunetik eta erakundearekiko zintzotasunetik, eta autogobernu horretan aurrera egitea, Estatuko gainerakoekin erantzukizuna eta solidaritatea izanaz eta Europako proiektuari begiratuaz, hango partaide ere bagarelako.
  
10. Ekintza politiko horretako azken ardatz gisa, errealitate historikoa, kulturala eta soziala zaintzea eta babestea, Nafarroako hizkuntza propioak barne.

Helburu horiek kontuan hartuta eta ardatz horiek mahai gainean jarrita, lau alderdiok proposamen zehatzak jorratu ditugu, etorkizuneko Nafarroa diseinatzearekin batera. Zeren, lehen esan bezala, premiazkoa artatuko dugu baina gizarte moduan aurrean ditugun erronkei erantzuteko gure gain hartu beharreko aldaketak alde batera utzi gabe.

Programan akordioak finkatuta utzi ditugu, baina baita desakordioak eta horien kudeaketa ere. Hortaz, gauzak gardentasunez eta prestutasunez egiteko ildo horretan, herritar guztiek gure ibilbide-orrria ezagutzea nahi dugu, baina baita zein gairen inguruan akordio batera ez garela iritsi eta alde horiei nola egingo diegun aurre aurrez jakitea ere.

Dokumentua publikoa, ezaguna eta oso zabala denez, ez dut osorik azalduko, baina arlo ezberdinetan nabarmendu ditzakegun zenbait gairen berri emango dizuet. Edonola ere, herritar guztiei adierazi nahi diet hedabideen zarata interesatua alde batera utzi dezatela eta irakurri, baloratu eta izpiritu kritikoarekin iritzia eman dezatela.

Esan bezala, era laburragoan aipatuko ditut arlo ezberdinetan hartutako konpromisoak.

## **EZAGUTZA, HEZKUNTZA ETA AUKERA-BERDINTASUNA**

**Hezkuntza kalitatezkoa izatea lehentasun bat da.** Proiektu zabala eta anitza hartuko dugu kontuan, bikaintasuneko eskola publikoa jorratuaz, gizarte zuzen eta inklusiboaren eta aukera-berdintasuneko gizartearen oinarri gisa.

Modu horretan, Hezkuntzaren aldeko Itun Sozial eta Politikoa bultzatu nahi dugu, sistemari egonkortasun legegilea eta arauemailea emango diona, horretarako, hezkuntza-komunitate bera kontuan hartuaz.

Hezkuntza eta bekak oparotasunaren eta aukera-berdintasunaren funts bezala ulertzen baditugu, dituen baliabideetan aurrera egingo dugu. Ingurune aurreratuenak BPGdaren %5 ingurukoak dira, eta leku horretan kokatzeko lan egingo dugu.

Gure ustez, LOMCEk atzean geratu behar du, eta Hezkuntzako beste Lege bat egin behar da oinarrizko eremu gisa.

Esparru berri horrek beste printzipio batzuetan aurrera egin ahal izatea erraztuko du; esate baterako, eskola publikoaren laikotasunean.

Hezkuntza publikoaren eskaintza gehituko dugu. Gure iritziz, ikasleak sexua dela-eta bereizten dituzten ikastetxeekin itunak egitea saihestu behar da.

Baterako hezkuntza maila guztietan oinarrizkoa dela uste dugu gizarte ez sexista batean aurrera egiteko. Hori dela-eta, Skolae programa aplikatzen jarraituko dugu, baliabide publikoekin finantzatzen diren ikastetxe guztietara iristeko urratsak emanez.

Dibertsitatea Artatzeko Plana garatuko dugu.

Araudia eta egutegia abian jarriko ditugu; halaber, funts publikoekin mantendutako ikastetxe guztien artean ikasleak modu orekatuan banatzea bermatzeko prozedura jorratuko dugu, desabantaila soziokulturean edo babes gutxiagoko egoeran aurkitzen diren ikasleen tasa eskola publikoan gutxitu ahal izate aldera.

Hezkuntza-kalitateaz ari garenean, ezinbestekoa da plantillei egonkortasuna ematea eta plantilla organikoa funtzionalera doitzen joatea.

Lurralde Lankidetzako Plana proposatzen dugu, landa-eskolak bultzatzen dituen. Gizarte eta lurralde kohesiorako eta biztanleria finkatzeko funtsezko papera duen eskola.

Modu berean, berrikuntza-ildo horretan, Hezkuntza Bereziko Ikastetxeentzako hobekuntzak proposatzen ditugu.

Halaber, garrantzitsutzat jotzen dugu zero eta hiru urte arteko haur eskoletan eskolatzea gehitzea, doakoak eta unibertsalak izateko lan eginez, egoera ahulenean bizi diren familietatik hasita.

Gure ustez, beharrezkoa da Lanbide Heziketako Plan Estrategikoa garatzea, modernizatu eta egokitu dadin, eta LH Dualean aurrera egitea.

Beken sistemak, berriz, funtsezko ardatza izaten jarraitu behar du, eta urratsak ematea proposatzen dugu unibertsitate publikoko gradu-ikasketetan lehen matrikula doakoa izan dadin.

Hizkuntza-eredu ezberdinekin lan egiten duten ikastetxeak sustatu nahi ditugu eta euskararen hezkuntza-plangintza publikoa bultzatzea hizkuntza propioa bezala **borondatezkotasunetik eta elkarbizitzatik**. Halaber, dagokien araudi eta plangintzarekin, atzerriko hizkuntzen irakaskuntza diseinatu nahi dugu, Hizkuntzak Ikasteko Programak irakasle kualifikatuekin garatzearekin batera.

Testu-liburuek benetan doakoak izan behar dute.

NUPen eskutik lan egin behar dugu urte anitzeko finantzaketa bermatuaz; titulazio berriak garatzea bultzatu behar dugu, urte anitzeko ikerketa-deialdien bidea egiteaz gain.

Halaber, konpromisoa hartu dugu **Eskolako Bizikidetzaren Plana** egiteko, jazarpena, homofobia eta xenofobia bezalako gai hain sentikorrek edo beste edozein diskriminazio-modu artatzea bermatzeko.

## **GENERO-BERDINTASUNA ETA ANIZTASUNA**

Hauteskundeetan parte hartzeko, berdintasuna politika publikoen zeharkako elementua izateko eta Lehendakartzaren mende egoteko konpromisoa hartu nuen.

Eta konpromiso hori azaltzen ari naizen akordiora iritsi garenon uste osoarekin partekatzen dugu. Hori dela-eta, aurtan

onartutako berdintasun legea garatuko dugu eta gizarte osoarentzat prebentziorako eta sentsibilizaziorako ekintzak eta programak bultzatuko ditugu.

Indarkeria matxisten aurka borrokatzeko erantzunak eta baliabideak mahai gainean jartzen jarraitu behar dugu. Esparrua ematen digun legea badugu, eta jakin badakigu emakume biktimei eta haien seme-alabei arreta osoa eskaintzeko lan egin behar dugula.

Gizarte eta enpresa mailako konplizitatea bilatuko dugu, laneko diskriminazioak ezabatzeko. Emakumeek langabezia eta ezegonkortasun gehiago jasaten dute. Erantzunkidetasuna errazte aldera, gizarte osoak konpromisoa hartu behar du lan-malgutasuna bezalako neurriak lantzeko. Emakumeen salerosketaren aurka borrokatu eta hori harrapatzeko jardueraren plana proposatuko dugu, Nafarroako Gobernuan jada existitzen den protokoloa aplikatuz.

Eskubide sexualen eta ugalketa-eskubideen arloan, hezkuntza eta prebentzio politikak lantzen jarraituko dugu, zentro espezifikoen egitekoa indartzeaz gain. LGTBI+, berdintasun sozialaren legea, badugu, eta ezartzen jarraitu behar dugu.

## **NAFARROA SOZIALA ETA ONGIZATEARENA**

### *Osasun-politika*

Nafarroak Osasun-arloko Foru Lege berria behar du Osasunbidea eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua modernizatzeko, gaitasun juridikoa eta antolatze gaitasuna eman dezan, kudeaketa autonomoagoa, arinagoa eta eraginkorragoa burutu ahal izateko eta errealitate sozialetara egokitzeko. Lege horretan, osasun-arloko hezkuntza eta ingurumen eta laneko osasuna aintzat hartu behar dira.

Gure ustez, profesionalek zein sindikatuek eta gizarteak berak osasun-politiken kudeaketan eta erabakietan parte hartu behar dute.

Farmaziako gastu altuari eutsi behar diogu besteak beste botikak arrazionalizatuta edota arreta espezializatuan ere generikoak aginduta.

Gure arreta-ereduak pertsonen eta komunitatearen premietan oinarritu behar du eta osasunaren zaintzan erantzunkidetasuna sustatu.

Premia bereziak dituzten taldeentzat plan sozio-sanitarioa eguneratu nahi dugu eta etxez etxeko arreta-programa zabaldu.

Osasun Publikoa sustatuko dugu honako gai hauetan esku hartuz: zahartze aktiboa, haurren gizentasuna, drogazaletasunak eta mendekotasunak eta lan-osasuna.

Lehentasuna emango diogu Lehen Arretari sistemaren ardatz gisa. Lehen Arretaren estrategia ezarri behar da eta gaixo kronikoak bezalako sektoreetan papera indartu.

Osasun Mentaleko Hirugarren Plana ez ezik, Sexu eta Ugalketako Osasunaren Foru Dekretua ere garatuko dugu, haurdunaldiaren etete farmakologikoa bermatuz osasun-arlo guztietan.

Zaintza aringarriak eta bizi-amaierako arreta integrala bermatu behar dugu. Gorte Nagusietan eutanasia despenalizatzea lortzeko ekimenak bultzatuko ditugu.

Ikerketa, irakaskuntza eta ezagutzaren kudeaketa osasun-estrategiaren ardatz izango dira IDISNArekin edo Medikuntzako Fakultate berriarekin batera.

Eta erizaintzaren egitekoa indartzen jarraituko dugu, osasun-garraioaren egoera jorratzeaz eta enpresa publikoa sortzeko aukera aztertzeaz gain.

Horrez gain, transplanteen programak eta espetxeko osasunaren eskumena gure gain hartzeko bidean aurrera egingo dugu.

### *Gizarte-politikak*

Arlo sozialean, gizarte-zerbitzuen zorroa errealitate berrietara egokitu behar da; hala nola, zahartzea eta desgaitasuna duten pertsonen erabateko inklusioa edo espazio soziosanitarioaren garapena; era berean, berdintasunean bermatutako zerbitzuak eta prestazioak areagotu behar dira Nafarroa osoan.

Kontzertu Sozialen eta Sanitarioen Legea bultzatuko dugu, pilotaje berritzaileak zerbitzu berrietan, eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Sistema ere bai, finantzatzeko dekretu berriarekin eta baliabide materialak eta giza baliabideak egokituta, arreta osoa bermatzeko esku-hartze soziala egin dezaten.

### *Mendekotasuna*

Mendekotasunean, helburuetariko bat izango da prestazioak birbideratzea, zerbitzuek pisu handiagoa izatearren.

Kontzertazio-eredu berria landuko dugu eta zerbitzuen koordinketa berriz hausnartu, bereziki egoitza-zerbitzuena.

Eta etxean egoteko laguntza ekonomikoari buruzko araudia hobetuko dugu.

Gure ustez, mendekotasunerako eta desgaitasunerako prestazioak berrikusi eta bateratu behar dira, sarrera, baldintza, bateragarritasun edo tarifei dagokienean.

### *Desgaitasuna*

Desgaitasunaren Plan berria garatu beharko dugu eta zentro okupazionalak zentro itundu bilakatu, bermatutako prestazio bezala aitortzearekin batera. Desgaitasuna duten pertsonen eskubideak bermatzeko foru-legea egiteko aukera aztertuko dugu.

### *Haurtzaroa eta familia*

Politika publikoen zeharkako elementu gisa berdintasunarekiko dugun konpromisoaren esparruan, familia-eredu guztien onarpen erreal eta eraginkorraren aldeko apustua egingo dugu.

Haurtzaroaren eskubideak bermatzeko ikuspegi integrala proposatuko dugu, Familiaren, Haurtzaroaren eta Nerabezaroaren bigarren Plan Integrala garatuz, prebentzioan arreta bereziki jarrita.

Eta, jakina, betiere haurren pobrezia aurreratu egiteko konpromisoarekin.

### *Adineko pertsonak*

Gizarte bezala aurrean dugun erronketariko bat zahartzea da, eta ikuspegi ezberdinetatik jorratu behar dugu. Testuinguru horretan, **Zahartze Osasungarrirako Estrategia** proposatzen dugu, eta bakarrik bizi diren pertsonak kontuan hartuko dituen zerbitzuen sistema publikoa landu nahi dugu.

### *Gizarte-inklusioa*

**Gizarte Inklusioaren Plan Estrategikoa** ezarri beharra daukagu, Gizarte Inklusioaren aldeko eta Pobrezia aurreratu egitearekin batera.

Diru-sarrerak bermatzeko sistemak, jadanik abian denak, gizarte-inklusioaren oinarria indartu behar du, eta, horretarako, beharrezkoak dira akonpainamendu soziala eta gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbideak. Horrez gain, sistemari koherentzia eman behar zaio, eta, beraz, aparteko laguntzak eta larrialdiko laguntzak berriz eratu behar diren aztertu beharko da.

**Gizarte Enplegu Babestua** erreminta baliagarria izan denez, lan aurreko eta lanerako baliabideekin ezarri beharko da.

**Pobrezia energetikoaren aurkako legea** bultzatzeko konpromisoa hartuko dugu, talde

ahulenak babestu ahal izateko.

**Migratzaileen harrera integralerako protokoloa** ezarriko dugu, eta errefuxiatuak hartzeko jada abian denarekin aurrera jarraituko dugu.

### *Lankidetz*

Lankidetzari dagokionean, Garapenerako Laguntza Ofizialaren aurrekontua gehitu nahi dugu, datorren urterako gutxienez %0,4 jarrita, eta ahal denean %0,7ra iristeko asmoarekin, edonola ere 2030. urtea baino lehenago.

Garapenerako Lankidetzako Nafarroako Agentzia sortzeko aukera aztertuko dugu.

### *Gazteria*

Gazteria-politiken arloa egokitu behar dela uste dugu eta horren inguruko araudia garatu behar dela parte-hartzetik; era horretan, hirugarren Gazteria Plana egin eta abian jarri nahi dugu, elkarrekin eta erakundeekin batera lan eginaz.



Gure iritziz, gazteriaren langabezia eta ezegonkortasun datuek agerian uzten dute enpleguaren eta ekintzaitzaren estrategia abian jarri beharra dagoela, bekadunen eta ikerlarien lan-eskubideak ere zaintzarekin batera.

Gazteriak bereziki duen beste arazo bat da ezbairik gabe etxebizitza eskuratzearena. Ondorioz, alokairu-eredua bultzatu behar dela uste dugu erosteko aukerarekin eta guzti eta partekaturiko etxebizitzaren belaunaldi arteko eredua ere bai.

Gazte Txartela programari esker, inklusioa bermatzeaz gain, kultura eta aisia aktiboa eta osasungarria izateko aukerak sustatuko ditugu; halaber, ingurumen eta lurralde mailan gazteria sentsibilizatzeako programak abian jarriko ditugu.

Garraiorako txartel bakarra, elkarreragingarria, abian jartzeko lan egingo dugu, mugikortasun iraunkorra eta lurralde-kohesioa erraztearren.

## *Etxebizitza*

Etxebizitza eskuratzeko arazo soziala oso sakon jorratu dugu, eta erantzun oso zehatzak lortu ditugu.

Jada badugu onartutako etxebizitza-plana, eta hori garatzeko konpromisoa hartzen dugu birgaitzeari eta alokairu sozialari garrantzia emanaz.

Etxebizitza-parke bizigarria eta eskuragarria bultzatu nahi dugu. Horretarako, ondorengoak hartuko ditugu kontuan:

- ✓ Errehabilitaziorako, irisgarritasunerako eta energia-eraginkortasunerako laguntzak; horretarako, betiere aintzat hartuko dira ondorengo irizpideak: diru-sarrerak, bizikidetza-unitatea osatzen duten pertsonak, landa-eremuen kasuistika, e.a.
- ✓ Cohousing, belaunaldi arteko ostatua bezalako programa berritzaileak eta erabileraren lagapeneko kooperatibak bezalako formulak.

- ✓ Larrialdi-egoerak artatzea gizarteratzeko programa bultzatuaz eta banku-erakundeekin bitartekaritza-lanak egitea etxegabetutako familien egoera jorratzeko.

Gure egitekoa izango da babestutako etxebizitzaren kudeaketa hobetzea eta etxebizitzaren funtzio soziala bermatzeko eskubidea jorratuz joatea, etxebizitza hutsak alokairuan jartzeko mobilizatuaz, poltsa publikoaren baldintzak hobetuaz eta lankidetzaren publiko-pribatua nahiz neurri fiskalak bultzatuaz.

## **KULTURA ETA KIROLA**

Kulturaren aurrera eraman beharreko bidea Kultur Eskubideen Foru Legearen garapenarekin erlazionaturik dago, eta profesionalen eta herritarren partaidetzarekin gauzatu nahi dugu.

Aurrekontuaren %1,5 kultur politiketara zuzentzeko bidea egin nahi dugu, sortu berri diren sektoreetara edo ekintzaitzara zuzenduriko laguntzak eta kenkariak bultzatuz.

Kultur ondarea, museoak, liburutegiak eta sektoreari laguntzea ere badaude egiten ditugun proposamenen artean.

### *Kirola*

Kirolari dagokionez, osasunaren ikuspegitik planteatzen dugu, baina baita oinarrizko kirolekin hasi eta goi errendimenduko kiroleraino ere landuko dugu.

Ikastetxeetan ikasketa plan motor bat sustatuko dugu. Kirol errendimendu plana garatuko dugu, eta hemendik aurrera ere horretan lehentasunezko tokia izango du Kirolaren Ikerketa eta Medikuntza Azterketen Zentroak.

Beharrezkoa da instalazioen plan zuzendari bat egitea.

Indartu egingo dugu Miguel Indurain Fundazioak eta emakumeen kirolak betetzen duten tokia, eta baita berdintasunaren aldeko eskolako planak ere.

Aurreko legegialdiaren amaieran aho batez onetsi genuen jarduera fisikoaren eta kirolaren foru legea. Gai hori garatu gabe dago oraindik, eta baita federazioei eta elkarte egiturari eman beharreko laguntza ere, diru-laguntzak azkartuz eta oso hedaturik ez dauden kirolak eta herri kirolak ere kontuan izanik.

Posible izango da interes orokorreko ekitaldien kirol babesa sustatzea, kontuan izanik ez ditugula lagunduko apustu etxeek finantzaturako edo babesturiko ekitaldiak.

## **ENPLEGUA ETA EKONOMIAREN AURRERAPENA**

Nire azalpena enpleguari eta Nafarroarako nahi dugun garapen ekonomiko ereduari buruzko akordioarekin jarraituko dut.

### *Lehiakortasunaren eta eraldaketa digitalaren bultzada*

Ez dugu nahi Nafarroa komunitate lehiakorra izatea soldata baxuak dituelako, komunitate berritzailea delako baizik. Hori dela eta, berrikuntza eta digitalizazioa proposatzen dugun ereduaren ardatz dira.

Hori dela eta, Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren esparruan dagoeneko aurreikusten den **berrikuntza digitalerako poloa** sortzeko apustua egiten dugu. Bertan, ikerketan ari diren langileak, I+G+B eragileak, oinarri teknologikoa duten enpresa berritzaileak eta ikerketa azpiegiturak elkartuko dira. Polo horrek erraztu egingen du sistema produktiboko industriaren ezinbesteko eraldaketa, ekintzaitza bultzatzeaz gain.

Kultura aldaketa bultzatuko dugu enpresan, administrazioan eta gizartean. Robotizazioa, nanoteknologia, big data edo gauzen Interneta gaur egungo arloak eta etorkizuneko erronka dira jadanik eta, ondorioz, horien ezarpenari lagundu behar diegu.

Industriaren modernizaziorako eta dinamizaziorako **Eraldaketa Digitala Nafarroa 2030** programa garatuko dugu.

Nafarroako **Zientzia eta Teknologia Planaren** barruan jabetza industrialaren sustapena eta patenteen sorkuntza sustatuko ditugu.

Enpresak finantzatzeko neurriak indartuko ditugu, mailegu-lineen eta abal publikoen bidez, erosketa publiko berritzailea sustatzeaz gain.

S3 izenekoaren barruan lehiakortasunerako estrategikotzat hartzen diren inbertsioak lagunduko ditugu, nazioartekotzearen, ikerketaren eta garapenaren esparruetan, batez ere.

Enpresak Nafarroara erakartzeko estrategia integrala bultzatuko dugu.

### *Enplegua, talentuaren kudeaketa eta Gizarte Elkarrizketa*

**Nafarroak akordio kultura du.** Kontzertua, partaidetza eta elkarrizketa erabakiak hartzen orduan. Ildo horretan, akordio estrategikoak sustatuko ditugu Gobernuaren eta gizarte eta enpresa arloko erakundeen, unibertsitateen, zentro teknologikoen eta enpresen artean, adostasunean oinarrituriko gizarte garapeneko hazkunde eredu iraunkorra aurrera eramateko.

Enplegu politika aktiboekin jarraitzen dugu, S3 izenekoak ematen digun esparruarekin lerrokaturik, eta lanean ari diren langileei, langabetuei eta gazteei zuzendurik. Politika Aktiboetarako buruzko Akordioa ezarri behar dugu, eta 2021erako bertze akordio bat prestatu. Baina politika orok etengabeko ebaluazioa eskatzen du. Horretarako, sistema bat prestatuko dugu, gastuan eraginkortasuna eta efikazia hobetzeko, kontrataziorako hobariak ahaztu gabe.

Uste dut laneko gero eta istripugarritasun handiagoaren aurkako borroka denok konpartitzen dugun helburua dela, erantzukidetasunaren alorrean eman beharreko ezinbesteko aurrerapausoak bezala.

Horretarako, gizarte eta enpresa arloko eragileekin batera, gizarte elkarrizketaren barruan, laneko ordutegi egokiak ezartzeko, ez ohiko orduak mugatzeko eta kontrolatzeko eta lan, pertsona eta familia kontziliazioaren bidean aurrera egiteko beharrezkoak diren neurriak lortzeko gizarte eta ekonomia hitzarmena lortu behar dugu.

## *Ekintzailetza*

Autonomoen eta ekintzaileen sektoreak, akordio honetan jaso nahi izan ditugun zenbait eskari bideratu ditu aspalditik, administrazio arloko izapideen murrizketa eta sinplifikazioa eta jardueraren hasieran, batez ere, behar duten laguntza berezia.

Sodenaren bitartez, arrisku kapital funts estrategikoa garatu nahi dugu, Nafarroan funtsezko enpresen hazkundera eta sustraitzea bultzatzeko.

## *ETEak eta Gizarte Ekonomia*

ETEEK ere gure komunitateko espezializazio estrategiaren barruan egon behar dute, ezin dira alde batean geratu. Horretarako, nazioartekotzerako eta hazkunderako finantzaketaren hobekuntza landu behar da, lehiakortasuna bultzatzeko sektore elkarrekin edo clusterrak sustatuz, eta baita familia industria ere. Finantzaketaren hobekuntza hori tresna publikoen bitartez egingo da, elkarrenganako berme sistemaren bitartez, alegia.

Sodena ezinbesteko tresna izanen da enpresa arloko bultzadarako.

Gizarte arloko ekonomia apustua da eta, ondorioz, bigarren Plana egingen dugu, sektorearen eskutik.

## *Industria*

Adierazi dudan bezala, industriak gaur egun duen erronka eraldaketa digitala da, eta industriaren ondoan egon behar dugu prozesu horretan, laguntza emanez. Baita lantaldeak gaztetzeko eta deslokalizazio arrisku posibleei eusteko prozesuetan ere.

Automobilgintzaren kasuan, ibilgailu elektrikoarekin, autonomoarekin eta kontaktaturikoarekin erlazionaturiko NAVEAC proiektuan jarraituko dugu lanean. Eta, jakina, sektoreko Nafarroako enpresen finkapena eta dibertsifikazioa bultzatuko dugu, produktuetan, zerbitzuetan eta merkatuetan, jarduera indartzeko.

Energia berriztagarriak bultzatzeko estrategietan sakonduko dugu, biltegiatzean, sorkuntza banatuan, autokontsumoan, berrindustrializazio berdean eta ekonomia zirkularrean.

Nekazaritza-elikadura sektorea ere funtsezkoa da gure komunitatearen garapenean. Beraz, bultzatzen jarraituko dugu.

Osasun arloko berrikuntza bultzatuko dugu, eta zainketan eta zahartze osasungarrian oinarrituriko ekonomiaren garapenaren aldeko apustua egingen dugu, sektore estrategikoa baita.

Gure industria sektore osoaren potentziala, soslai profesional berriei prestakuntza egokia eskaintzearekin baino ezin izanen da osorik garatu. Hori dela eta, **Lanbide Heziketa Dualaren** bultzada ere gure bertze apustu bat izanen da.

### *Azpiegiturak eta garraioa*

Azpiegiturak gure lurraldearen kohesioa hobetzeko beharrei erantzun behar diete, eta ez naiz **Nafarroako Ubidera** mugatzen, izan ere bertan argi eta garbi geratzen da Nafarroako Ubidea handitzeko lehen fasearen amaierarekin zein bigarren fasearen eraikuntzarekin dagoen konpromisoa, aho, industria eta ureztaketa kontsumo beharrei erantzuten zaiela bermatzeko.

**Errepideei** buruz ere ari naiz. Izan ere, kontserbaziorako inbertsioak eskatzen dituzte, eta horretarako funtsak behar ditugu. Hori dela eta, adostasun zabala proposatuko dugu, finantza arloko nahikotasun hori epe luzean jadanik finkaturik gera dadin.

**Aireportuaren** eskaintza ere bultzatu behar da.

Beharrezkoa da, baita ere, **banda zabal sarea** Nafarroa osora zabaltzeko prozesua amaitzea, eta baita gune batzuek **elektrizitatearen hornidurari** dagokionez dituzten arazoak konpontzea ere, Espainiako Gobernuarekin batera Dicastilloko azpi-estazioa bultzatuz. Hornidura elektrikoa orokorrean hobetzeko egingen dugu lan, gure sareak oso zaharkiturik baitaude.

**Errepideko garraio sektoreari** dagokionez, legez kanpoko jardunbideen kontra jardun behar dugu, elkarteetatik salatzen den lehia desleiala ekidinez.

Mugikortasunerako plan estrategikoa jarriko dugu martxan, eskualde arteko garraio publikoa eta landa inguruneetarako sarbidea sustatuz.

Horrez gain, kontsumo elektriko berriztagarria duten mugikortasun autonomoko ibilgailu modeloak sustatuko ditugu.

### *Merkataritza*

Merkataritza txikizkaria eta hurbilekoa da gure herriak bizirik mantentzen dituena. Hori dela eta, bultzatzeko ahalegina egin behar dugu.

Berrikuntzarako eta bikaintasunerako neurri espezifikoak sortuko ditugu. Eta Merkataritza

Ibiltarirako Plana egingen dugu.

### *Turismoa*

Beharrezkoa da Turismoaren legea aldatzea, sektorearen eskutik, jakina, sektorearen posizioa indartzeko xedez, jasangarritasunean, adimen turistikoa eta digitalizazioan oinarrituz. Donejakue Bidearen sustapenarekin jarraituko dugu.

## **JASANGARRITASUNA, INGURUMENA ETA EKONOMIA BERDEA**

Nire hitzaldiaren ia hasieran aipatu dudan ardatzetako bat **2030 agendaren garapena** izan da, politika publiko guztien garapen jasangarri eredu gisa. Horretarako, Klimaren Aldaketarako eta Energia Trantsiziorako Legea onesteko konpromisoa hartu dugu.

Gure helburua, energia berriztagarriek gure ekonomian toki garrantzitsua betetzea da, eta horretarako Pizgarri Berde Plan bat eginen dugu. Instalazio berriztagarri txikietara eta ertainetara zuzenduriko inbertsiorako laguntzekin batera, 2030 agendaren helburuak betetzen lagunduko digu.

Mugikortasun Jasangarriaren Plan Zuzendaria onetsiko dugu, garraio publikoa eta partekatua eta motorrik gabeko baliabideak indartuz.

Nafarroako Energiaren Agentzia bultzatuko dugu, eta Energia Berriztagarrien Operadore Publiko bat edukitzearen egokitasuna aztertuko dugu.

Uraren 2030 Esparru Estrategia Integratua onetsiko dugu, eta Hiri Erabilerako Uraren Ziklo Integralaren Plan Zuzendaria eramanen dugu aurrera. Ibai inguruen egoera ekologikoa hobetuko dugu.

Ekonomia Zirkularraren Garapenerako 2030 Agenda aplikatuko dugu, zero hondakin helburuan aurrera eginez.



Hondakin Legean errekurtsioa jaso duten puntuei dagokienez, laneko mahaia deitzea eskatuko dugu, horiek aztertzeko eta beraien edukien azterketa baloratzeko, hondakin zatikiaren kudeaketan eta tratamenduan gobernantzari dagokiona adosteko.

Legealdiko lehenbiziko urtean, ingurumenean eragina duten jarduerak arautuko dituen foru legea onetsiko dugu.

Bioaniztasunaren Nafarroako 2030 Estrategia bultzatuko dugu, bioaniztasunaren galera eta ekosistemen narriadura ekiditeko. Horrez gain, Ondare Naturalaren eta Bioaniztasunaren Foru Lege berria egingen dugu.

## **LURRALDE KOHESIOA ETA TOKI ADMINISTRAZIOA**

### *Toki Administrazioaren bultzada eta hobekuntza*

**Toki Administrazioaren Lege** berriari dagokionez, adostasun handiagoak lortu behar ditugula ulertzen dugu. Egungo udal eta politika eraketa kontuan izaten badugu, eta uste dut argi dagoela horrela izan behar dela, gehiengo politiko batzuek edo bertzeek legealdi bakoitzean aldatu ez dezaten.

Horregatik, legearen epeak 2020ko abenduaren 31ra arte luzatzea planteatzen dugu, 2021eko abenduaren 31ra arte luzatzeko aukera baloratuz, zenbait arlotan beharrezkoak diren aldaketak aztertzeko, eskumenak, finantzaketa, idazkarien eta kontu-hartzaileen egoera, eta kideen aukeraketa, toki erakunde desberdinek lege aldetik duten kokaera ahaztu gabe. Logikoa denez, adostasuna lehenago lortzen bada, neurriak aurreratu egingen dira.

Lurraldearen eta jasangarritasunaren Nafarroako agentziari eutsiko diogu, toki erakundeei lagunduko diegu hiri antolamenduan eta zenbait prozesutan, partaidetzan eta administrazio elektronikoaren ezarpenean, bertzeak bertze.

### *Toki finantzaketa*

Lana amaitu behar dugu, tokiko zerbitzu publikoen finantzaketaren kostua eta eskualdeko burualde izateak udalerrri batzuentzat dituen gainkostuak zehaztasunez ezagutzeko. Hortik aurrera, toki finantzaketa berrirako lege tresnak ezarri beharko ditugu.

Erreskate funts bat garatzea ere proposatzen dugu, toki erakundeen arteko finantzaketa egoera larriei erantzun ahal izateko.

### *Lurralde kohesioa eta despulazioaren aurkako borroka*

Lurralde kohesioa eta despulazioaren aurkako borroka aurrean ditugun erronkak dira, eta ez diegu soilik Gobernuaren egituratik eginen aurre –hortik ere bai, jakina– akordioa sinatu dugun lau taldeok erakutsi dugun konpromisotik baizik.

Medioarekin loturiko garapen ekonomiko ereduak bultzatu nahi dugu, gune bakoitzeko eragileekin lan eginen duena, industria poloak bultzatuko dituen eta zerbitzu publikoen deskontzentrazio geografikoa sustatuko duena.

Lan horiek lantzeko lehenbizi, despulazioaren mapa baten bitartez, gure komunitateko jarduketa bereziko guneak zeintzuk diren zehaztu beharko dugu, ondoren beharrezkoak diren zerbitzuak eta azpiegiturak definitzeko.

Estrategia hori, horretara zuzenduriko Europako funtsekin lerrokaturik egon beharko da.

Estatu mailako kontua den arren, uste dugu beharrezkoa dela administrazio publikoen arrazionalizazio legea indargabetzea.

### *Lehen sektorea*

Lurralde kohesioa eta despopulazioaren aurkako borroka lehen sektorearen ezinbesteko bultzadarekin loturik doaz, eta hori egituraketa, modernizazio, ingurumen arloko jasangarritasun, belaunaldien arteko errelebu eta emakumea nekazaritza munduan sartzeko irizpideekin egin behar da.

Gure produktuen kalitatea bultzatzen eta ingurumen arloko betebeharrak eta exigentziak hobetzen jarraituko dugu, abeltzaintza eta nekazaritza ekologikoak, ekoizpen integratua eta merkataritza kanal laburrak bultzatzeaz gain, eskaintzaren kontzentrazioa ahaztu gabe.

Eta beharrezkoak diren esparruetan, PAC indartsua defendatuko dugu.

## **OGASUNA, BALIABIDE PUBLIKOAK ETA FISKALITATEA**

### *Gastu eraginkorra*

Baliabide publikoek kudeaketa eredu arduratsuari erantzun beharko diote, politika orekatuarekin, gardenarekin eta ohiko gastuaren etengabeko kontrolarekin. Horregatik, finantzen aldetik jasangarria izanen den sektore publikoa izateko soluzioak aplikatuko ditugu, eta ohiko gastua baloratzeko neurriak bultzatuko ditugu, eraginkortasun eta efikazia handiena bilatuz, eta baita hornitzen diren ondasunen eta zerbitzuen kalitatea ere.

### *Aurrekontua*

Aurrekontua funtsezko tresna izanen da eraginkortasun horretan, zerbitzu eta politika publikoen plangintza eta ebaluazio elementu gisa.

Zorroztasuna eta jasangarritasuna izanen dira aurrekontu funtzionamendurako irizpideak, etorkizuneko hazkunde ekonomikoa hipotekatu ez dadin baina, aldi berean, enpleguaren sorkuntzarekin eta gizarte politiken nahikotasunarekin bateragarria izan dadin.

Esparru horretan, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak proposamenak aurkezteko orduan protagonismo handiagoa izatea nahi dugu, aurrekontuak egiten ari diren bitartean.

### *Kudeaketa ereduak*

Gure kudeaketa ereduak bertze adierazle batzuk ere izanen ditu kontuan, BPGtik haraindi, garapen sozioekonomiko maila eta desberdintasuna neurtzeko. Informazio gehiago emanen dugu, gardentasuna eta kontuak aurkeztu beharra bultzatzeko.

### *Iruzuraren aurkako borroka*

Iruzur fiskalaren, azpiko ekonomiaren eta deklaratu gabeko enpleguaren eta lehia desleialaren aurka borrokatu behar gara.

### *Jarduera ekonomikorako fiskalitatea*

Jarduera ekonomikoa bultzatzeko xedez, sozietateen zergaren oinarri zergagarrien harmonizazioan aurrera egitea eta PFEZn eta sozietateen zergan autogobernu fiskalerako mekanismoak indartzea proposatzen dugu, garapen jasangarria, berrikuntza, ekintzailletza eta enplegua bultzatzeko.

Zerga sistema hobetu eta eguneratuko dugu, ekonomia produktibo, administrazioaren finantza nahikotasun eta gizarte ongizate eta babes beharrei erantzuteko.

Enpresa handien onura fiskalak eta tributazioa aztertuko ditugu, eta I+G+B kenkariei eta enpleguaren sorkuntzari eutsiko diegu, enpleguan kalitatea exigituz, hori bai.

Ekonomia sorkuntza eredu berriek zerga eredu berriak ere eskatzen dituzte. Hori dela eta, ekonomia digitalaren fiskalitatea planteatzen dugu, merkataritza elektronikoan eta burtsako eragiketetan tributu berriak ezarriz.

### *Pertsonentzako fiskalitatea*

PFEZri dagokionez, familiako gutxiengoengatik errenta baxuei eta ertainei kuotan ezartzen zaizkien kopuru kengarriak hobetuko ditugu. Eta errenta maila jakin batzuetan kendu beharreko kopuruetan aurrera egingen dugu.

Alokairuarengatiko kenkariei dagokienez, Alokairuen Iraunkortasun Indizearen arabera bideratuko dira.

Fiskalitate berdearen alorrean, matrikulazio eta zirkulazio zerga murriztuko diegu automobil hibridoek eta elektrikoek.

Eta ontziraturiko edari azukredunen gaineko zerga ezartzea aztertuko dugu, kontsumoan ohitura osasungarriak sustatzeko.

## **FUNTZIO PUBLIKOA, JUSTIZIA ETA BARNE GAIAK**

### *Funtzio publikoa*

Berdintasun, meritu eta gaitasun irizpideak dira Funtzio Publikoaren barruko sarrera, promozio eta mugikortasun prozesu guztietan nagusi direnak eta izan behar direnak.

Denboraltasun tasa altua dugu eta, ahal den neurrian, zuzendu beharko dugu, Enplegu eskaintza publikoen bitartez.

Funtzio Publikoaren Estatutuaren aldaketa, gizarteko elkarrizketan oinarriturik landu beharreko lana izanen da, eta baita berdintasun planak ere, Gobernuko eta enpresa publikoetako lantaldeetan.

Bateraezintasunen legea aldatzea proposatzen dugu, goi kargu ohien osagaia kentzeko, bertze batzuen artean.

### *Justizia eta Barne gaiak*

Justizian, modernizazio teknologikoan, eta Ministerioarekin eta Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorrarekin izan beharreko koordinazioan egingen dugu aurrera, zerbitzua hobetzeko. Gatazkak epai bideetatik kanpo ebazteko sistemen aldeko apustuarekin jarraituko dugu, eta doako laguntza juridiko sistema indartzeko aukera emanen duten neurriak sustatuko ditugu.

Biktimen arretarako bulegoa indartuko dugu, eta Departamentuan Zigor Egikaritze bulegoaren sorkuntza aztertuko dugu, askatasuna kentzen ez duten zigorrak eta neurriak kudeatzeko eta bergizarteratze sarea koordinatzeko.

Foruzaingotari dagokionez, uste dugu beharrezkoa dela Poliziaren Antolamendurako eta Modernizatorako Plan Estrategikoa izatea. Kide gehiago behar ditugu, eta emakumeen presentzia bultzatu behar dugu.

Espainiako Gobernuarekin akordioa gauzatu nahi dugu, trafikoko eta bide segurtasuneko eskumenak gureganatzeko, eta hiri segurtasunean eta ingurumenean, bertzeak bertze, erreferentziazkoa izanen den polizia nahi dugu.

Gure konpromisoa, Foruzaingoaren eta Nafarroan lanean ari diren gainerako polizien arteko benetako koordinazioan lan egitea da.

Eta Suhiltzaileen Plan Zuzendari berria amaituko dugu.

Horrez gain, antolakuntza profesionalizatua eta boluntarioak izanen dituen Larrialdi sistema nahi dugu. Horretarako, 112aren erregulazio berria egingen dugu.

## **HIZKUNTZ POLITIKA**

**Hizkuntz politika arloko akordioa definitzeko hitz bat baldin badago, kontsentsua, adostasuna, da.** Gure iritziz, hizkuntz politika gure komunitatearen errealitatean oinarrituz landu behar da. Horregatik, euskararen inguruko gizarte eta politika mailako akordio zabala lortu nahi dugu. LORAFNAn jasotzen den hizkuntza propioa, alderdien arteko eztabaidarako edo gatazkarako gai izanen ez dena.

Oinarri gisa 1986ko Euskararen Foru Legea hartuko dugu, eta edozein arau garapen, komunitateko eskariarekin eta errealitate sozio-linguistikoarekin bat etorriko den tratamendua bermatzeko egin behar dela uste dugu, euskararen erabilera eta ezagutza boluntariedade eta aukera berdintasun printzipioekin bat etorri babestuz.

Lehenbiziko urtean, administrazio publikoei buruzko egungo arautegiaren funtzionamendua aztertuko dugu, eta diagnostiko horretan oinarriturik aldaketa bultzatuko da, ahalik eta adostasun handiena bilatzeko, sindikatuen, gizartearen eta politikarien artean.

Logikoa denez, ordainik ebatzi gabe dauden errekursoei buruz epaitegiek emanen dituzten epaiak izanen ditugu kontuan.

Eta esparru hori guztia kontuan izanik, Euskararen bigarren plan estrategikoa egingen dugu.

## **DEMOKRAZIAREN BERREZARPENA ETA KALITATEA**

Kalitate demokratikoan aurrera egiteko konbikziotik, eskumen gehiago emanen dizkiogu Kontuen Ganberari, inbertsio estrategikoei edo kopuru garrantzitsua eskatzen dutenei dagokienez egungo eta etorkizuneko bideragarritasunari buruzko txostenak egin ahal ditzan.

Konpromisoa hartzen dugu, Administrazioak ez ditzan ustelkeria politikoarekin erlazionaturiko delituengatik kondenaturiko enpresak kontratatu, bost urtez gutxienez.

Gobernuko eta Parlamentuko kideen kode etikoak eta jokabidekoak indartuko ditugu, gardentasunean eta datu irekietan aurrera egiteaz, transfugismoa saihesteko neurriak hartzeaz eta salatzailerearen estatutua egiteaz gain, Jardunbide Onetarako eta Ustelkeriaren Aurkako Bulegoaren barruan.

Funtsezko zerbitzu publikoen kudeaketa publiko zuzenari lehentasuna emanen diogu, eta kontratazioan garrantzia emanen diogu gizarte erantzukizunari.

Herritarren partaidetzarako mekanismoak, irisgarritasun kognitiboa eta hizkuntza inklusiboaren erabilera bultzatuko ditugu.

## **MEMORIA, BAKEA, BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEAK**

Parlamentu hau, jatorri politikoa duen indarkeriari legitimitatea kenduko dion eta memoria eta biktima arloan lan eginen duen lurzoru komuna eta partekatua finkatuko duen agiria landuko den gunea izan behar da.

### *Memoria Historikoa*

Memoria Historikoaren arloan lanean jarraitu behar dugu, deshobiraketekin eta identifikazioekin jarraitzeko, DNA bankuaren bitartez, eta biktimen senideei eta elkarteei laguntza emanez.

Oraindik, Estatu Kolpea, Gerra Zibila edo Diktadura omentzen duten zenbait sinbolo eta monumentu ikus daitezke, eta kendu egin behar ditugu.

### *Azken garaietako Memoria*

Sinatu dugun akordioak ETArekin eta bertze erakunde terrorista batzuen biktimekiko laguntza eta elkartasuna erakusten du, eta terrorismoaren biktimen eta beraien familien duintasunaren eta memoriaren aurka joan daitekeen edozein ekintzaren aurkako jarrera erakusten du.

Paul Prestonek “bere historia ezagutzen ez duena, akatsak errepikatuzera kondenaturik dago” erran zuen. Horregatik, beharrezkoa da indarkeria terroristaren ondorioen kontakizuna lantzea, balioetan heziz eta giza eskubideak sustatuz.

### *Bizikidetza eta giza eskubideak*

Giza eskubideek, hezkuntzaren bitartez indarkeria deslegitimatuz, elkarrizketa sustatzeko, aniztasuna ezagutzeko eta aberastasun gisa ulertzeko, jarrera arrazistak eta xenofoboak prebenitzeko eta iraganeko eta egungo indarkeriazko jardueraz ez legitimoak gaitzesteko balioko diguten zeharkako programen parte izan behar dute.

## **NAFARROA, BERE AUTOGOBERNUA ETA ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA**



## *Autogobernua*

Akordia sinatu dugun lau kideek konpromisoa erakusten dugu gure autogobernuarekin, bere bultzadarekin eta Nafarroako Foru Komunitateak bere dituen sinboloekin.

Esparru horretan, Estatuarekin negoziatzen jarraitzea planteatzen dugu, dagoeneko martxan dagoen trafiko eta bide segurtasun eskumena gureganatzeko eta ikerketa zientifiko eta tekniko eta kartzeletako osasun eskumenak gauzatu ahal izateko.

Nafarroa-Estatua batzorde misto berria sortzea proposatzen dugu, egungoak baino egiteko gehiago izanen dituen, edozein erakunde gatazkaren aurreko koordinazioaz eta kontsultaz arduratu dadin, ekonomia eta finantza arloari dagokiona lantzeaz gain.

Gure iritziz komenigarria da Hitzarmenaren Legea eguneratzea, zenbait arlotan, ekarpen ekonomikoan eta tributu konbenituetan, bertzeak bertze, eta baita tributu berriak ezarri ahal izateko ere, beti ere legezko esparruak errespetatuz, hau da, Konstituzioa, LORAFNA eta hitzarmenaren legea bera.

Elkarrizketa da gatazkak ebazteko tresna onena. Hori dela eta, elkarrizketaren bitartez, eta lankidetzaren bitartez, egingen dugu lan inkonstituzionaltasun errekurtsioak ebazteko.

Eta Parlamentuan ponentzia bat sortzea proposatuko dugu, konstituzioaren barruan LORAFNA eguneratzeko.

*Erakundeen arteko lankidetzaren bitartez. Partaidetza Estatuko eta Europako gobernantzan*

Nafarroa gune irekia da, eta lankidetzaren harremanak bilatu nahi ditu, beti ere erakundeen arteko errespetuan eta indarrean dagoen legedian oinarriturik, alboko autonomia erkidegoekin. Hori dela eta, Euro lurraldea sustatu nahi dugu, eta Nafarroaren partaidetza bultzatu Estatuaren gobernantzan eta Europan izan beharreko presentzian, gainerako erkidegoekin batera.

Europari emandako begirada horrekin, Bruselan dagoen Nafarroako Bulegoaren lanarekin jarraitzeko apustua egiten dugu. Aukerak irekitzen dizkigu, Europako Inbertsio Planarenak, bertzeak bertze.

## **DESADOSTASUNAK**

Orain arte, lortutako akordioei, legegaldi honetarako proposatzen ditugun neurri eta konpromiso nagusiei, buruzko kontakizun ordenatu samarra egiten ahalegindu naiz.

Dakizuen bezala, gai batzuetan ez dugu akordiorik lortu eta, zuzentasun politikoarengatik eta gardentasunarengatik, horiek ere dokumentuan islatu nahi izan ditugu, herritarrek jakin dezaten zein gai diren, eta baita oraindik aztertu gabe daudenak ere, adibidez, amatasun prestazioen ondoriozko PFEZ atxikipenen itzulketa posible egiteko modua, bertzeak bertze.

## **KOORDINAZIO, GARAPEN ETA JARRAIPEN MEKANISMOAK**

Akordio hau legegaldirako konpromisoa da, eta sinatzen dugun taldeak aurrera eramateko prest gaude, leialtasunean oinarriturik eta bakoitzaren berezitasunak errespetatuz. Horregatik, parlamentuko lanaren koordinaziorako eta garapen egokirako erabiliko ditugun mekanismoak ere publikoak dira.

Horrez gain, argi eta garbi utzi nahi dugu elkarrizketa konstruktiboa eta hemen ordezkaturik dauden indar guztiekin akordioa bultzatzeko dugun borondatea. Horretarako, beharrezkoak diren bideak ezarriko ditugu, elkarrizketa eta kontsentsu hori eraginkorrak izan daitezen eta erakundeei egonkortasuna eta ziurtasuna emateko balio dezaten.

Argi eta garbi daukat buru izan nahi dudana gobernuaren erabateko gehiengorik gabeko gobernuaren dela, eta gizartearen parte batean mesfidantza eragiten duela. Horregatik, konfiantza eskatzen dut.

Egia da konfiantza irabazi egin behar dela. Ez da fede ekintza bat. Horregatik, elkarrizketa eskaintzen diot Parlamentuari, gizarte eta ekonomia arloetako eragileei, gizarte erakundeei eta elkarteei, beraien jardueratik Nafarroa eraikitzen, **Nafarroari balioa ematen**, laguntzen duten eragile guztiei.

Denon eskuetan dago gure komunitatea berrikuntzaren, kalitatezko enplegu seguruaren, ekitatea bermatuko duten zerbitzu publiko indartsuen eta eskubideak eta aukerak mehatxatzen dituzten arrakalei amaiera emanen dien berrikuntzaren abangoardian jartzea, izan ere, zalantzarik gabe, erronka horiek guztiak denok konpartitzen ditugu.

Parlamentu honek bere konfiantza ematen badit, buru izan nahi dudan gobernu umiltasunean oinarrituko da, baina baita bere konbikzioen indarrean ere. Ez da soilik herritar **guztientzako** gobernu izanen. Herritar **guztien** gobernu izanen da.

Horregatik, eta Presidente izateko hautagai honetatik haraindi, deia egiten diet jaun-andre guztiei programa bat, akordio bat, bozka dezaten.

Horrela delako. Gobernuak osatzen dituzten pertsonak oso garrantzitsuak dira. Ez dago zalantzarik. Baina erakundeak dira denboran irauten dutenak eta une jakin batean horiek zuzentzen dituztenen gainean geratzen direnak.

Horregatik, gobernu baten buru izatearen ohorea eta erantzukizuna nire gain hartzeak erran nahi duenari errespetuzko begirada eman, lasaitasunetik eta umiltasunetik egiten dut. Proiektu honetara etorri nahi izan eta izanen dutenei eskerrak eman, eman duten pausoarengatik. Eta onartuz, aurretik, ez dugula dena ongi egingo. Jakina ezetz. Pertsonak gara. Ez gara perfektuak. Baina gure ahalegin guztia jarriko dugu ahalik eta ongien egiteko. Eta lana, konpromisoa eta dedikazioa agintzen ditugu. Elkarrizketa eta lasaitasuna. Ausardia. Zorroztasuna eta auto-exijentzia.

Eta Nafarroak bere garapenean bultzada jaso dezan egingen dugu, berdintasunean eta bere aniztasuna aitortuz. Beti ere errespetuarekin eta erakundeenganako leialtasunarekin. Lankidetzan arituz, borrokan aritu beharrean. Sareak josiz, arrakalak ireki beharrean. Erronka handia dugu aurrean, baina baita programa handia ere. Zuek horrela ulertzea nahiko genuke, gobernagarritasuna bultzatuz. Erakundeak buru belarri martxan jar daitezela, erronkak hor daudelako, eta erronken denborak ez direlako politikaren denborekin bat etortzen. Erronkek ezin dute itxaron, eta jendearen arazoek ere ez.

Jaun-andreak:

**Elkarrizketa eta akordioa, hobetzeko; elkarrizketa eta akordioa, bizikidetzan aritzeko.**

Eskerrik asko Presidente jauna, eskerrik asko jaun-andreak. Eskerrik Ask.